

GOGORATZEN DUZU... AZTERTU ETXEAN?

AZTERTU ETXEAN 2020 urteko COVIDaren krisian sortu zen. Hilabete horietan gure bizimodua egokitu behar izan genuen, zentzu guztietan. Garai hartan, egin genezakeen guztia **etxetik** egin behar genuen, baita **ikasi** edo **lan egin** ere, beste gauza askoren artean.

Jakina, *Aztertu Programa* ez zen salbuespena izan. Programaren ohiko jarduerak bertan behera geratu ziren udaberri hartan, eta horrek geure burua berrasmatzera eta jakin-minaren eta ingurumen-hezkuntzaren espiritua bizirik mantentzeko ekintza berriak planteatzera bultzatu gintuen.

Horrela sortu zen **AZTERTU ETXEAN**, joko bat helburu ezberdinekin: ikasi, kontzientzia hartu eta, batez ere, **ONDO PASATU**.

Espiritu berarekin, baina pandemiaren alde negatiboa ahaztuta, pozten gaitu esateak...

AZTERTU ETXEAN ITZULI DELA!

NOIZ?

Jokoa **apirilaren 29an** (astelehena) jarriko da martxan eta **ekainaren 23an** (igandea) amaituko da. **Astelehenero, 10 galdera berri** argitaratuko dira, astean zehar erantzun ahal izango direnak (igandeko 23:59ak arte).

- **1. ASTEA:** APIRILAK 29 - MAIATZAK 5
- **2. ASTEA:** MAIATZAK 6 - 12
- **3. ASTEA:** MAIATZAK 13 - 19
- **4. ASTEA:** MAIATZAK 20 - 26
- **5. ASTEA:** MAIATZAK 27 - EKAINAK 2
- **6. ASTEA:** EKAINAK 3 - 9
- **7. ASTEA:** EKAINAK 10 - 16
- **8. ASTEA:** EKAINAK 17 - 23




NORK PARTE HAR DEZAKE?

Nahi duen orok har dezake parte. Adina eta dedikazioa ez dira axola.

Egin behar den gauza bakarra eskatutako datuak betetzea da, erantzuten hasi aurretik: **izena** (edo *nick*) eta **posta elektronikoa** (jokoari buruzko informazioa partekatzeko erabiliko duguna).

Adin gomendatua: 12 urtetik aurrera.



NOLA JOKATZEN DA?

Aztertu programan jorratutako gaiei buruzko **QUIZ** bat da (GoogleForms bidez): Euskadiko natura-ondarea, ekosistemen zaintza, iraunkortasunarekin eta ingurumenaren babesarekin lotutako ohiturak, eta abar.



Asteko sailkapen bat egongo da, parte-hartzaile bakoitzak zenbat galdera asmatu dituen adieraziko duena.

***Ez da derrigorrezkoa astero parte hartzea, baina horretara animatzen zaituztegu.*

ORDUAN... LEHIAKETA BAT AL DA?

EZ, ez da lehiaketa bat, ez baita asmo horrekin sortu. Baina bai, sailkapen bat egongo da, parte-hartzea sustatzeko helburu bakarrarekin.

Aztertu programaren sari-banaketan **aipamen berezia** izango dute sailkapenaren lehenengo **hiru pertsonak**. Era berean, **laugarren saritu bat** egongo da, aste batean (behintzat) parte-hartu dutenen artean zozketaren bitartez hautatua izango dena.

ZALANTZAK ETA GALDERAK

Aztertu Etxean ekimenaren inguruko edozein kontutarako, Aztertu Programaren lantaldearekin jar zaitezke harremanetan: aztertu@euskadi.eus / Tel: **747 42 99 33**

